Irailaren
2tik goiti,
TXARTEL
honek zuen
egunerokoa
alda dezake!

à partir du
2 septembre,
ce TICKET
pourrait bien
changer votre
quotidien !






# TXIK TXAK

# eguneroko joan-etorriak egiteko eskaintza berria!

Euskal Elkargoak mugitzeko aukera berriak eskaintzen dizkizu. Mugikortasun eskaintza berriak helburu horiek betetzen ditu:

- **Auto indibidual, garesti eta kutsakorrari alternatiba plantan ematea.**
- **Hurbileko joan-etorrien mailako igurikapenei erantzutea. Zure mugitzeko behar guziak asetzen ditu: etxea-lana, aisialdiak, ikastetxeak…**

## Sare sinple bat baino gehiago. Zerbitzu aukera zabala!

Euskal Hirigune Elkargoak eta Aturri – ipar Euskal Herria Mugikortasunen Sindikatuak lehen-lehenik neurri konkretuak bideratu nahi izan dituzte. Hala, elkarrekin, sarea berrantolatu, hobetu eta garatu dute. Ondorioz, zure beharrei egokitu zerbitzu berriak izanen dituzu. Txik Txak izena du. Ez da autobus sare soil bat. Hori baino gehiago da. Zerbitzu aukera zabala eta koherentea eskaintzen du: tram'busa, autobusa, bizikleta, itsasontzia, ingurabidea… Bakoitzak aurkituko du hor bere beharretara egokitu eskaintza. Txik Txak zerbitzuak irakurterrazagoak dira, etxetik hurbilago dituzu, modernoagoak dira, ingurumena gehiago errespetatzen dute eta arras ekonomikoak dira.

Garraio publikoak gehiago eta autoa gutiago erabiltzen badituzu, berotze klimatikoaren kontrako borrokan parte hartzen duzu. Txik Txak-ek egin hautu teknologikoak bide onetik doaz.

- **Tram'busa %100 elektrikoa da. Ondorioz, ez du CO2rik isurtzen. Zu ere, joan-etorri mota horien enbaxadore izan zaitez!**

Txik Txak-i esker, autoari alternatiba plantan emana da: entseatu!

Zure etxetik edo lanetik hurbil pasatzen den Txik Txak sare berria entseatu, hemen erantsirik dagoen « Ezagutzeko Pass » eskaintzari esker.

**Irailaren 2tik 30era, « Ezagutzeko Pass » txartelak erabili eta Txik Txak sarearen praktikotasuna, erosotasuna, puntualtasuna eta berritasuna entseatu.**

### Nola erabili?

Oso erraza da: txartela moztu eta entseatu nahi duzun garraio zerbitzuaren gidariari eman.

(ikus Pass-a erabiltzeko argibideak)

**Esku orri honetan 4 Ezagutzeko Pass daude.**
**Horiekin, Txik Txak sarearen zerbitzuak entseatu! Zuretzat arras egokiak dira!**

2019ko irailaren 2tik 30era balia ditzakezu.
Txartel 1 = joanaldi bat pertsona batentzat.
Tram'busetan, autobusetan, itsasontzietan, T.A.D. galdearen araberako garraioan, Autobus espresan eta Proxi'busan baliagarri. Txartelak moztu eta gidariari eman.

## Txik Txak Chronoplus sarean

### Tram'busa

**Txik Txak sare berriaren ibilbide nagusia da!**

Irailaren 2an, 1. ibilbidea martxan jarriko da: fite ibiltzeko bide zabalak, erosotasun handiko autobus geltoki berriak, puntualtasun zorrotza eta beste autobus ibilbideekilako loturak.

- **Tram'bus bat 10 minutu guziez.**
- **%100 elektrikoa den, CO2rik isurtzen ez duen eta isil-isila den garraio zerbitzua.**
- **Ibilgailu konektatuak (Wi-Fi, kargatze sistemak, argibideak).**
- **Tram'busa 05:30etik 00:30era ibiliko da astean zehar eta 05:30etik 02:30era ostegun, ostiral et larunbatetan.**

### Autobusa

Jadanik existitzen zen sarea indartu da.

Ibilbide berrien abantailak ezagutu.

Zuen etxetik edo lanetik hurbil, bada autobus bat!

- **Beste 4 herrietara joaten da: Mugerre, Milafranga, Basusarri eta Arrangoitze.**
- **Maiztasun gehiago.**
- **Ordutegi zabalagoak.**



### Itsasontzia
Berehala entseatzeko ibilbide bat, eguneroko edo aisialdiko joan-etorrientzat.

« San Izpirituko joan-jinkaria »-ren osagarri den eta « Txalupa » izena duen ibilbide berri batek Angelu, Bokale eta Baiona elkarri lotzen ditu. Udan, ibilbidea Angelura hedatzen da ere.

- **15 minutu, Bokaleren eta Baionaren artean.**

### T.A.D. Galdearen araberako garraioa Angelun
Zuetarik beti ahal bezain hurbil izateko "galdearen araberako" zerbitzu esperimental berri bat plantan emanen da Angeluko auzo batzuetan, autobus ibilbide erregularrei lotzeko.

- **Nahi duzuelarik erreserbatzeko ibilgailua.**

## Txik Txak
## Hegobus sarean

### Autobusa
Autobus sarea indartu da. 11 ibilbide eta maiztasun berriak ezagutu eta entseatu.

- **Ibilbide berri baten irekitzea Donibane Lohizune, Zuraide, Ezpeleta eta Kanbo elkarri lotzeko.**
- **Eskaintza berria maiztasun gehiagorekin Donibane Lohizunen, Ziburun, Urruñan eta Hendaian.**

## Txik Txak
## Autobus espresa

Ibilbide gehiago eta maiztasun gehiago.

- **Beste herri batzuetara joaten da (Iholdiko eta Hazparneko eremuetan).**
- **Zerbitzu eskaintza berria Baiona-Hendaia itsasbazterreko ibilbidean.**

## Txik Txak
## Proxi'busa

Euskal Herri barnealdeko 3 herritan eguneroko hiru hiri-ibilbide sortu dira.

- **Mauleren inguruan,**
- **Donapaleuren inguruan,**
- **Kanboren inguruan (2019 urte hondarrean)**
- **« Ezagutzeko Pass » eskaintzatik kanpo**

## Txik Txak
## Bizikleta

Zerbitzu horiek ez dira « Ezagutzeko Pass » eskaintzan sartzen.

Hala ere, irailaren 2tik goiti erabiltzen ahalko dituzue.

Ipar Euskal Herrian mugitzeko zinezko aitzinamendua dira. Froga:

Nehoiz ikusi gabeko bi zerbitzu plantan eman dira ipar Euskal Herri osoan: laguntza elektrikoko bizikletak. 130 km luzeko bizikleta bideetan erabiltzen ahalko dituzue (bide berdeak, bide bazterrak eta bizikleta bideak).

- **120 bizikleta zerbitzu librean, itsasbazterreko herri guzietan eskuragarri, Tarnosetik Hendaiara.**
- **200 bizikleta iraupen luzeko alokatzean, bizikleta elektrikoa entseatzeko.**

## Txik Txak
## Hau ere bada

### Eusko Pass-a
Eskaintza berria da, mugaz gaindiko joan-etorriak errazteko. Malgutasun gehiago, prezio bakarrean!

- **« Hegobus + 3. ibilbidea + TOPOA » txartel bakar bat.**
- **48 orenez balio duen joan-etorria.**

### Ingurabide Pass-a
Abantailazko prezioa zuen eguneroko joan-etorrientzat

(hilabetean gutienez 20 bidaia).

Autobideko abonamendu berri bati esker, %50ko beherapenak izanen dituzue A63 eta A64 autobideetan. Eta laster %70eko beherapenak.

(baldintzen araberako eskaintza osagarria)

### Eskolako garraioa
Behar berrietara egokitu zerbitzua, zuen haurren joan-etorriak errazteko eta goxatzeko.

### Joan-jinkariak urririk
Hiri barneetan autorik gabe ibiltzeko, orain badira urririk diren joan-jinkari berriak, ibilbide hobetuak eta zerbitzu berriak.

- **Baionako 2 ibilbideak:**
- **Hiri barnea**
- **San Izpirituko joan-jinkaria: Aturriren zeharkatzea urririk, San Izpiritu eta Baiona handia elkarri lotzeko.**
- **Biarritzeko 2 ibilbideak:**
- **Haraout <> Espainiako auzoa**
- **Hipodromoa <> Saint-Charles**

### Trena
Kanboren eta Baionaren arteko trenbidearen alderdi onak agerian emanen dira, Akitania Berriko eskualdearen laguntzarekin. Zerbitzua bikoiztuko da (8 joan-etorri, lehengo lauen ordez), ordutegiak etxea/lana eta etxea/eskola joan-etorrien beharren arabera egokituko dira, eta geltokien inguruak antolatuko dira autoa edo bizikleta hobeki aparkatzeko.



TXIK TXAK Les mobilités du Pays Basque

SYNDICAT DES MOBILITÉS PAYS BASQUE-ADOUR

Communauté Pays Basque Euskal Elkargoa

**Argibide gehiago:** irailaren 2tik 27ra **0 801 902 264** Service & appel gratuits

communaute-paysbasque.fr txiktxak.fr chronoplus.eu hegobus.fr


TXIK TXAK
Les mobilités
du Pays Basque
OCÉAN ATLANTIQUE
L'Adour
TARNOS
BOUCAU
ANGLET
BIARRITZ
BIDART
ST-JEAN-DE-LUZ
CIBOURE
HENDAYE
La Plaine
Square Mora
La Baye
Gare de Boucau
Cale de Boucau
Brise Lames
Redon
Chambre d'Amour
Cinq Cantons
BAB 3000
Les Barthes
Mairie de Biarritz
Europe
Aéroport de Biarritz
Bernain Montòri
Jardin Public
Gare de Biarritz
Halle Iraty
Cité de l'Océan
Uhabia
Izarbel
Lafitenea
Plage Erromardie
Guéthary
Lore Landa
Trois Croix
Gare de St-Jean-de-Luz
Alturan
Arbonne
Ahetze
Bassussarry
Arcangues
Lycée Maritime
Zaldi Xurito
Chantaco LP Arrue
Abadia
Grande Plage
Les Deux Jumeaux
Urrugne
Ascain
Saint-Pée-sur-Nivelle
Souraïde
Espelette
Gare d'Hendaye
Irun
Biriatou
Sare
Aïnhoa
T1
3
4
5
6
14
31
37
38
39
43
44
45
46
47
48
49
51
52




*Ce plan est une représentation schématique du réseau : Il ne respecte pas les distances réelles

TXIK TXAK

# Une nouvelle offre pour vos déplacements du quotidien !

La Communauté Pays Basque vous propose une nouvelle offre de mobilité qui répond à plusieurs objectifs :

- **Offrir à tous une alternative à la voiture individuelle, coûteuse et polluante.**
- **Répondre aux attentes en matière de déplacements de proximité.**

Tous vos besoins doivent être couverts, domicile-travail, les loisirs, les scolaires…

## Plus qu'un réseau, un éventail de services !

La Communauté Pays Basque et son Syndicat des Mobilités Pays Basque Adour souhaitent prioritairement apporter des réponses concrètes. Ensemble, ils ont ainsi réorganisé, optimisé, développé votre réseau. Vous bénéficierez de nouveaux services plus adaptés à vos besoins.

Txik Txak, cette nouvelle identité, n'est pas seulement un réseau de bus, c'est une offre multiple  et cohérente : Tram'Bus, bus, cars, vélo, bateau, rocade urbaine… : chacun trouvera, en fonction de son besoin, son service.

Ainsi les services Txik Txak sont plus lisibles, plus proches de vous, plus fiables, plus accessibles, plus modernes, plus respectueux de l'environnement et toujours très économiques.

Opter pour plus de transport public et moins de voiture, c'est participer à la lutte contre le réchauffement climatique. Les choix technologiques de Txik Txak vont dans le bon sens.

- **Le Tram'bus ne produit aucune émission de $CO^2$, il est 100 % électrique.**

Vous aussi, devenez acteurs de ces modes de déplacement !

Avec Txik Txak, l'alternative au tout voiture est désormais en place : c'est à vous d'en faire le test !

## Vous doutez encore ?

Découvrez le nouveau réseau Txik Txak au plus près de votre domicile ou de votre lieu de travail, avec l'offre « Pass Découverte ».

**Du 02 au 30 septembre, utilisez les tickets «Pass Découverte» pour tester vous-même la praticité, le confort, la ponctualité et les nouveautés du réseau Txik Txak.**

**Comment les utiliser ?**

C'est très simple : vous les découpez et vous les remettez au conducteur du mode de transport que vous aurez choisi de tester.

(Voir modalités sur le Pass)

**Grâce aux 4 Pass Découverte ci-contre, venez tester tous les nouveaux services Txik Txak pensés pour vous !**

Valables du 02 au 30 septembre 2019
Ticket pour un trajet aller simple / 1 personne.
Valables sur le Tram'bus, Bus, Bateau, T.A.D., Car Express et Proxi'bus. À découper et à remettre à votre conducteur.

## Txik Txak sur le réseau Chronoplus

### Le Tram'bus

**C'est la ligne phare de ce tout nouveau réseau Txik Txak.**

La ligne 1 ouvre pour vous le 02 septembre. Des voies réservées pour aller plus vite, de nouvelles stations, du confort, de la ponctualité, des correspondances optimisées avec toutes les autres lignes.

- **Un Tram'bus toutes les 10 minutes.**
- **Un service 100 % électrique, zéro émission, silencieux.**
- **Des véhicules connectés (wifi, recharge, informations).**
- **En service de 05h30 à 00h30 en semaine et jusqu'à 2h30 le jeudi, vendredi, samedi.**

### Le Bus

Le réseau existant a été renforcé. Découvrez les avantages des nouvelles lignes, avec un bus plus proche de chez vous !

- **4 nouvelles villes desservies : Mouguerre, Villefranque, Bassussarry et Arcangues.**
- **Des fréquences renforcées.**
- **Une amplitude horaire élargie.**



## Le Bateau

Une ligne à essayer très vite, pour vos trajets quotidiens ou vos loisirs. En complément du « Passeur de Saint-Esprit / gratuit » une nouvelle ligne dénommée « Txalupa » relie désormais Anglet, Boucau et Bayonne. Cette ligne est étendue à Anglet l'été.

- **15 minutes entre Boucau et Bayonne.**

## Le T.A.D. Transport à la demande d'Anglet

Pour être toujours plus près de vous, un service expérimental de Transport à la demande est mis en place sur certains quartiers d'Anglet pour les relier aux lignes régulières.

- **Un véhicule à réserver quand vous voulez.**

# Txik Txak sur le réseau Hegobus

## Le Bus

Le réseau de bus a été renforcé. 11 lignes et de nouvelles fréquences sont à découvrir.

- **Ouverture d'une nouvelle ligne entre Saint-Jean-de-Luz, Souraïde, Espelette et Cambo.**
- **Une offre renforcée pour plus de fréquences, sur Saint-Jean-de-Luz, Ciboure, Hendaye et Urrugne.**

# Txik Txak le Car Express

Plus de lignes, plus fréquentes.

- **De nouvelles villes sont desservies (secteurs Iholdy et Hasparren).**
- **Une nouvelle offre de service sur la ligne littorale Bayonne-Hendaye.**

# Txik Txak le Proxi'bus

Deux lignes urbaines quotidiennes ont été créées à l'intérieur du Pays Basque.

- **Autour de Mauléon,**
- **Autour de Saint-Palais,**
- Autour de Cambo (ouverture fin 2019)

**Hors offre « Pass Découverte »**

# Txik Txak le vélo

Bien que ces services ne soient pas accessibles avec l'offre « Pass Découverte », vous avez désormais l'opportunité de les utiliser dès le 02 septembre. C'est une avancée majeure dans vos déplacements sur le Pays Basque. La preuve…

Deux services inédits de vélos à assistance électrique sont mis en place sur l'ensemble du Pays Basque. Vous pouvez les utiliser sur plus de 130 kilomètres d'aménagements cyclables (voies vertes, bandes et pistes cyclables).

- **120 vélos en libre-service sur toutes les communes du littoral de Tarnos à Hendaye.**
- **200 vélos en location longue durée pour tester le vélo électrique.**

# Txik Txak c'est aussi

## L'Eusko Pass

Une offre pour faciliter vos trajets transfrontaliers, à tarif unique !

- **Une tarification entre Hegobus, la ligne littorale 3 et le TOPO.**
- **Aller-retour valable 48H.**

## Le Pass Rocade

Une tarification préférentielle pour vos déplacements du quotidien (20 trajets minimum).

Un tout nouvel abonnement d'autoroute va vous permettre de profiter de 50% de réduction sur l'A63-A64. Et bientôt à 70% (offre complémentaire sous conditions).

## Le transport scolaire

Un service ajusté aux nouveaux besoins, pour tranquilliser les déplacements de vos enfants.

## Les navettes gratuites

Pour profiter des centres-villes sans utiliser la voiture, il y a désormais de nouvelles navettes gratuites, des parcours améliorés, de nouveaux services.

- **Bayonne 2 circuits :**
  - **Centre-ville**
  - **Le Passeur Saint-Esprit** : traversée gratuite de l'Adour pour relier Saint-Esprit au Grand Bayonne.
- **Biarritz 2 circuits :**
  - **Haraout <> Quartier d'Espagne**
  - **Hippodrome <> Saint-Charles**

## Le train

La ligne entre Cambo et Bayonne sera améliorée avec le concours de la Région Nouvelle-Aquitaine. Désormais le service sera doublé (8 allers-retours au lieu de 4), les horaires adaptés aux besoins des trajets domicile/travail et domicile/école, les aménagements jouxtant les gares et les haltes investis pour mieux garer sa voiture ou son vélo.

Aout. 2019 – Direction de la Communication du Pays Basque – Atelier Bilto Orèga/**Design**
2019ko iraila – Euskal Elkargoko Komunikazio Zuzendaritza – Atelier Bilto Orèga/Design
Merci de ne pas jeter sur la voie publique - Ez bota eremu publikora

Txik Txak — Les mobilités du Pays Basque



**Plus d'informations :** du 02 au 27 septembre **0 801 902 264** Service & appel gratuits — communaute-paysbasque.fr — txiktxak.fr — chronoplus.eu — hegobus.fr






Ezagutzeko Pass-a 2019ko irailaren 2tik 30era balia daiteke. Txartel 1 = joanaldi bat pertsona batentzat. Tram'busetan, autobusetan, itsasontzietan, T.A.D. galdearen araberako garraioan, Autobus espresan eta Proxi'busan baliagarri. Txartelak moztu eta gidariari eman.

Pass Découverte, valable du 02 au 30 septembre 2019.
Ticket pour un trajet aller simple / 1 personne.
Valable sur le Tram'bus, Bus, Bateau, T.A.D., Car Express
et Proxi'bus. À découper et à remettre à votre conducteur.






Ezagutzeko Pass-a 2019ko irailaren 2tik 30era balia daiteke. Txartel 1 = joanaldi bat pertsona batentzat. Tram'busetan, autobusetan, itsasontzietan, T.A.D. galdearen araberako garraioan, Autobus espresan eta Proxi'busan baliagarri. Txartelak moztu eta gidariari eman.

Pass Découverte, valable du 02 au 30 septembre 2019.
Ticket pour un trajet aller simple / 1 personne.
Valable sur le Tram'bus, Bus, Bateau, T.A.D., Car Express
et Proxi'bus. À découper et à remettre à votre conducteur.






Ezagutzeko Pass-a 2019ko irailaren 2tik 30era balia daiteke. Txartel 1 = joanaldi bat pertsona batentzat. Tram'busetan, autobusetan, itsasontzietan, T.A.D. galdearen araberako garraioan, Autobus espresan eta Proxi'busan baliagarri. Txartelak moztu eta gidariari eman.

Pass Découverte, valable du 02 au 30 septembre 2019.
Ticket pour un trajet aller simple / 1 personne.
Valable sur le Tram'bus, Bus, Bateau, T.A.D., Car Express
et Proxi'bus. À découper et à remettre à votre conducteur.